




2. URRATSA



2. URRATSA

EZ NAIZ ISILIK EGONGO

Ramuntxo Christy

APEXA ETA LOREA

Joan Batista Elizanburu

SOLFERINOKO ITSUA

«A. Salaberry».

Batzuen ustez, Joan Batista Elizanburu

TXORIMALOBUURUARI

Amets Arzallus Antia

AGUR POBRE DEN GUZIA

Luzia Goñi Olias

ENE ERREKONTRUA

Fernando Aire *Xalbador*

SORTERRIKO KOBLAK

Joseba Sarrionandia Uribelarrea

ARI NAIZELA ARI NAIZELA

Pedro Jose Elizegi *Pello Errota* /

Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*

GURE ZIRKUA

Uxue Alberdi Estibaritz

TXIRRITAK GERRARI 1936KO BERTSO GUDUAN

Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*

BIHURRIKERIAK

Nahia Etxeberri Lopepe

NORK EZ DU NAHI

Odei Barroso Gomila

GERNIKA'KO TXIKIKETA

Iñaki Eizmendi *Basarri*

ERROTA ZAHARRA

Juan Mari Lekuona Berasategi

AMERIKANOA TA NESKATXA

Martzelina Lopetegi Olaiz

JA-JAI!

Indalezio Bizkarrondo *Bilintx*

IZAZU NITAZ KUPIRA


Indalezio Bizkarrondo *Bilintx*



EZ NAIZ ISILIK EGONGO

Doinua: Erran dut erranen ta errango

Neurria: Kopla handia. Bi puntuko handia (ip) / Lauko handia (hg)



Ramuntxo Christy
(1980 Aiherra,
Baxenabarre)

- 1 “Erran dut erranen ta errango enaiz isilik **egongo...**”
etxeko lanak egiten ez dut asteburua **pastuko!**
- 2 “Erran dut erranen ta errango enaiz isilik **egongo...**”
ene burasoak ez dira berriz ene ganberan **sartuko!**
- 3 “Erran dut erranen ta errango enaiz isilik **egongo...**”
futbol, rugby ta pilotan gira neskak ere **arituko!**
- 4 “Erran dut erranen ta errango enaiz isilik **egongo...**”
mugikor berria ukan arte ez dut bakea **emango!**
- 5 “Erran dut erranen ta errango enaiz isilik **egongo...**”
kontzertuetara joaiteari ez diot eginen **uko!**
- 6 “Erran dut erranen ta errango enaiz isilik **egongo...**”
ebaluaketak astelehen goizez ez ditugu **onartuko!**
- 7 “Erran dut erranen ta errango enaiz isilik **egongo...**”
Herri Urratsen ez niz gehiago burasoekin **geldituko!**
- 8 “Erran dut erranen ta errango enaiz isilik **egongo...**”
jakin nahi nuke zer tenoretan* giren egun **afalduko!**



tenoretan = ordutan





«A. Salaberry».
Batzuen ustez,
Joan Batista Elizanburu
(1828-1891 Sara, Lapurdi)

SOLFERINOKO ITSUA

Doinua: Armen hartzera deitu ninduen A

Neurria: Kopla handia. Bi puntuko handia (ip) / Lauko handia (hg)

1864an, Anton Abadiak Saran antolatutako sariketan, bigarren saria jaso zuen sorta honek.

«A. Salaberry» sinatu zuen autoreak; ikerlari batzuen hipotesia da Elizanburu izango zela.

Solferino, Italiako herri bat da. 1859an gudua izan zen bertan; Italiaren bateratze prozesuan zeuden eta, Solferinon, frantziar eta sardinia armadak austriarren armadari gailendu zitzaizkien.

Gudu hartan itsututako soldadu baten istorioa kontatzen du sortak, lehen pertsonan.

Elizanburu bera ere, apaiz ikasketak utzita, Frantziako armadan sartu eta kapitain izan zen.

1871an, Napoleon menderatua izan zenean, itzuli zen Sarara.

- 1 Armen hartzera deitu ninduen gazterik zorte **etsaiak** urrundu nintzen herri alderat itzuliz usu* **begiak**. (bis)
- 2 Zorigaitzean baitut ikusi Solferinoko **hegia***! Alferretan dut geroztik deitzen iguzkiaren **argia**. (bis)
- 3 Nihoiz* enetzat ez da jaikiren goizeko argi **ederra** zeru gainetik nihoiz enetzat dizdiraturen **izarra**. (bis)
- 4 Betiko gaua, gau lazgarria, begietara zait **jautsi** ene herria, ene lagunak, nihoiz ez behar **ikusi**! (bis)



usu = sarri, maiz
hegia = mendi magala

Nihoiz = inoiz





- 5 Ene amaren begi samurrak betiko zaizkit **estali** maiteñoaren begitartea behin betiko **itzali**. (bis)
- 6 Ez aipa niri landa hegitan sortzen den lili **ederra** otoi*, ez aipa ur axalean arinik doan **ainara**. (bis)
- 7 Larrainetako* haritz, gaztaina, mendietako **iturri** horiek oro* enetzat dire amets histu* bat **irudi**. (bis)
- 8 Herriko bestan, gazte lagunak kantuz plazara **dohazi*** eta ni beltzik etxe zokoan, irri egiten **ahantzi**.* (bis)
- 9 Oraino* gazte, gogoz ez hoztu, eta biziak **lotsatzen**... Dohakabea! Zer eginen dut Jaunak ez banau **laguntzen**? (bis)
- 10 Ai, aski hola! Jainkoa, barka, begira zure **haurrari**! Kontsolamendu zerbait emozu. Noizbait duzu **urrikari**.* (bis)



otoi = arren
Larrainetako = Toki izena
oro = denak
histu = ilun

dohazi = doaz
ahantzi = ahaztu
Oraino = oraindik
urrikari = errukarri





AGUR POBRE DEN GUZIA

Doinua: Garia saltzen nengoelarik II

Neurria: Kopla handia. Lauko handia (hg) / Bi puntuko handia (ip)

Testuaren iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa



Luzia Goñi Olias
(1928 Aizarotz -
2020 Tirapu, Nafarroa)


Luzia Goñi Aizarotzen jaio zen (Basaburua bailaran, Nafarroan) baina, umea zela, bere jaioterria husten ikusi zuen, aberatsek herriko lur denak erositak. 1970ean eskaini zion sorta hau bere jaioterriari eta "Principe de Viana" aldizkarian argitaratu zen.

- | | |
|---|---|
| 1 Basaburuan dago herri bat
ballean* den txikiena
han jaio nintzen eta nahi nuke
gora jaso bere izena . | 5 Gure aitari saldu zioten
Gartzaronen terrenua
ahal zun bezala, etxea egin
eta jaso zun burua . |
| 2 Arrarasko eliza sanduan
hartu nuen bataioa
zazpi urtekin atera ginen
handik famili osoa . | 6 Badela berrogei urtez gehigo
egin zuten etxe dena
gerra-denboran jarri zioten
«Judas-Benta» dun izena . |
| 3 Hirur abratsek* erosi zuten
hain maite dudak herria
diru baitira, agur arbolak!
Ta agur pobre den guzia . | 7 Agur deneri, eskerrik asko
ni banijoa lanera
zuen artean ni egonen naiz
ez bada galtzen euskera . |
| 4 Olitxeako Silbestra izan zen
lehenbiziko joan zena
gero Kristobal eta Martinak
errota uzteko pena . | |



ballean = bailaran

Hirur abratsek = Hiru aberatsek



Jose Gaitia

Joseba Sarrionandia
Uribelarrea
(1958 Iurreta, Bizkaia)

SORTERRIKO KOBLAK

Doinua: Oihaneke pagoak blai

Neurria: Hiru puntuko kopla. Kopla handia, hiru puntuz

Testuaren iturria: Badok, Berriaren Euskal Musikaren Ataria

Mikel Laboak 1985ean grabatu zuen kantua, berak sotutako doinuaz. Hitzak Joseba Sarrionandia idazlearenak dira; kopla zaharren estilora, naturako irudiak baliatuz, maitasunaz ari da.

1 Oihaneke pagoak blai
aideratuz hiru **elai***
ostadarraren* harian dira
hirurak pausatu **nahi**. (bis)

2 Larrosak dira gorriak
edo bestela **xuriak**
hagitzez* dira ederragoak
neskatilaren **irriak**. (bis)

3 Maldan behera urratsa
betiko bidean **latsa***
odei ilunak gaua belzten du
udazkena da ez **bedatsa***. (bis)

4 Usapalak* ostantzean*
huts bat badut **bihotzean**
zatoz maitea gure etxera
jostatzera **arratzean**. (bis)

5 Eder basoan haritza
haran aldean **garitza**
fruitu antzera ontzen da hemen
gizasemeen **bizitza**. (bis)

6 Sagar gorriak dilindan
damea dago **ganbaran**
maite laztanez hartzeko eta
elkartzeko **ohantzean***. (bis)

7 Isiltasuna abailtzen* da
luma galdu bat **bezala**
begiak uso, mingaina arana
zure bihotza ene **aingura**. (bis)

8 Urrun gauhontzak uluka
zakur deslailak* **zaunkaka**
mende oso bat iraganen dut
zure ondoan **koblaka**. (bis)

*** elai** = ainara
ostadarraren = ortzadarraren
hagitzez = ainitzez
latsa = erreka edo leoka (arropak garbitzeko lekua)
bedatsa = udaberria

Usapalak = Tortolak
ostantzean = gordetzean
ohantzean = habian, ohean
abailtzen = amiltzen
deslailak = abandonatuak







GURE ZIRKUA

Doinua: Oihaneko pagoak blai

Neurria: Hiru puntuko kopla. Kopla handia, hiru puntuz




Mendi Urruzuno




Uxue Alberdi Estibaritz
(1984 Elgoibar, Gipuzkoa)

- 1 Begira zirkuko **filak**,
behelainotan **bonbilak**;
aspaldi ume izan zirenak
ta oraingo **neska-mutilak**. (bis)
- 2 Argindar sokan bi **txori**,
orekaria da **hori**;
baietz artista zutik mantendu
eta itzala **erori**. (bis)
- 3 Ilunpeko foku **argi**,
gau epeleko **ilargi**...
Gaur ilusio bat piztu bada,
nork daki, igual **bihar bi** (bis)
- 4 Pailazoak bi **zapata**,
ahateak **kakaraka**,
ume txiki bat negar malkotan,
amona bat **algaraka**. (bis)





5 Xaguxarraren **kulunka**,
trapezioan **zabuka**,
ia jausi da, ia jausi da...
Hara! Zintzilik **dirau-ta!** (bis)



6 Zapiak, kartak **tolestu**,
mago bakarrak lau **esku**,
lilurapean hemen nork ez du
sinestezina **sinestu?** (bis)



7 Oihala soinaren **kusku**,
tximeleta bat **biluztu**,
argi more bat piztu da eta
airea loturaz **hustu.** (bis)



Mendi Urruzuno

8 Lau ilargi parez **pare**
gora ta gorago **hare**,
orbita baten dantzaz dabilta
urrutira joan **gabe.** (bis)





9 Zuhaitz adar eta **zurtoin**,
eskumutur, hatz eta **oin**;
munstro bakar bat bihurtu dira
elkarri helduta bi **soin**. (bis)



10 Sugandila **bihurria**,
aldrebes **irakurria**,
zer animala mota da hori?
harritu da **inurria**. (bis)




11 Zikoinak zeruan **hegan**
soineko zuritik **edan**...
Mutiko batek ahoa eskuz
estali du lehen **ileran** (bis)



Mendi Urruzuno

12 Ileordea, **sudurra**,
ilusioa, **beldurra**...
Guztia ez da egia baina
deus ere ez da **gezurra** (bis)





Nahia Etxeberri Lopepe
(2008 Donapauale,
Baxenabarre)

BIHURRIKERIAK

Doinua: Mixelengo zubia

Neurria: Lau puntuko txikia (ip) / Zortziko txikia (hg)


- 1 Egunero arauak ditugu **aditzen**
ta entseatzen* gira asperdura **hiltzen**
ezin utzi orduan ideiak **isiltzen**
bihurrikerietan nor ez da **ibiltzen**? (bis)
- 2 Zerbait sinestarazi gaixo **amamari**
edo sagarrak hartu auzoko **jaunari**
“Uhu” kola kaderan* **erakasleari**
mundu hontan badira aukera **ugari**. (bis)
- 3 Txiste on bat buruan lagunak **aldean**
beti atxemaiten* da faila* bat **legean**
irriz aritzen gira eginez **taldean**
baina buruak apal zigorren **parean**. (bis)
- 4 Bihurrikeriak du semea **gaztigu**
baina egun pizuak arintzen **dizkigu**
kasu* halere nehor ez da behar **mindu**
denak elgarrekilan gira **bihurri gu**! (bis)



entseatzen = saiatzen
kaderan = aulkian
atxemaiten = atzematen, aurkitzen

faila = urratu
kasu = adi, erne





Odei Barroso Gomila
(1988 Urruña, Lapurdi)

NORK EZ DU NAHI ?

Doinua: Ene seme maitea

Neurria: Lau puntuko txikia (ip) / Zortziko txikia (hg)

- 1 Nork ez ditu busti nahi bi oinak **uretan**,
eguzkipean egon **asteburuetan**
hondarrean ibili bi zango **punttetan**
desio duen horrek izanen du **bertan**!
- 2 Nork ez du dastatu nahi zuhaitzen **itzala**,
belar gainean etzan, ximurtu **azala**,
eta arnasa hartu inoiz ez **bezala**.
Desio duen horrek izanen du **hala**!
- 3 Nork ez du sentitu nahi haize fin **leguna**,
goizeko ihintza eta lakuen **lurruna**,
egunaren argia, gauaren **iluna**...
Inguruan daukagu desio **duguna**!
- 4 Ingurumenak eman dizkigu **opari**
leku, momentu eta desio **ugari**
beraz pentsa dezagun gaudenok **kantari**
Zer ematen diogun **ingurumenari**?





ERROTA ZAHARRA

Doinua: Errota zahar maitea

Neurria: Zortziko txikia (hg). Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Badok, Berriaren Euskal Musikaren Ataria



Juan Mari Lekuona
Berasategi (1927 Oiartzun
– 2005 Donostia, Gipuzkoa)

Bertsoek azaltzen dutenez, errota zaharrak alea xehetzean negar egiten duen bezalaxe, triste dago bertsolaria ere, bihotz minez, ezinezko maitasunagatik.

Doinua Xabier Letek sortu zuen eta kantua ezagun egin zen Xabier Letek eta Lourdes Iriondok abestuta.

1 Errota zahar maitea
uraren **ertzean**
uraren ertzean da
basati **beltzean**
negar egiten dezu
alea **xehetzean**
ni ere triste nabil
zutaz **oroitzean**. (bis)

*Zotin sekua dagi
errotarriak.
Itzalitako izar-dirdirak
dira neretzat zure begiak.*

2 Izar eder bat dago
hor goiko **lepuan**
errota zaharra, berriz
erreka **zokuan**.
Berebiziko pena
badaukat **barruan**:
ezin gintezke bizi
elkarren **onduan**. (bis)

*Bizitzaren legea
nahi dut onartu.
Halabeharra
koraiez hartu
berez doana
zertan behartu?*





JA-JAI!

Doinua: Behin batean Loiolan

Neurria: Zortziko txikia (hg). Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Euskal Kantutegia. Eusko Ikaskuntza



Indalezio Bizkarrondo
Bilintx (1831-1876
Donostia, Gipuzkoa)

Donostiako Loiola auzoan, erromerian, Bilintxek neska batekin izandako elkarrizketa islatzen du. Sorta honek doinu aldaera asko ditu; horietan ezagunenak bi dira:

“Behin batean Loiolan III”, Txomin Artolak eta Amaia Zubiriak “Folk-lore-sorta” CDan argitaratua (1991 Elkar).

“Behin batean Loiolan IV”, Egan taldeak “Hemen gaude” CDan jasoa (1985 Xoxoa). Doinua Kanadako John Denver abeslariaren kantu ezagunetik ekarri zuen Egan taldeak.

1 Behin batean Loiolan
erromeria **zan**
hantxe ikusi nuen
neskatxa bat **plazan**
txoria baino ere
arinago **dantzan**
huraxe bai polita
han politik **bazan**.

2 Esan nion desio
senti nuen **gisan**
harekin hizketa bat
nahi nuela **izan**
erantzun zidan ezik
atsegin har **nezan**
adituko zidala
zer nahi nion **esan**.

3 Aurkitu ginenean
inor gabe **jiran***
koloreak gorritu
arazi **zizkidan**
kontatuko dizuet
guztia **segidan**
zer esan nion eta
nola erantzun **zidan**.

4 Dama polita zera
polita guztiz, **ai**!
Baina halere zaude
oraindik **ezkongai**
ezkon gaitezen biok!
Esan zaidazu “**bai**”!
-Ni zurekin ezkondu?
Ni zurekin? **Ja-Jai**!





Joan Batista Elizanburu
(1828-1891 Sara, Lapurdi)

APEXA ETA LOREA

Doinua: Neguaz primadera

Neurria: Zortziko txikia (hg). Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Euskal Kantutegia. Eusko Ikaskuntza

Apexa (edo tximeleta) eta lorearen arteko maitasuna agertzen du. Goizero, eguzki argitan, tximeleta hegan joaten da lorez lore eta iluntzean, eguzkia sartzean, itzuli egiten da hain maitea duen lorearengana. Loreak ere nahi luke apexarekin hegan joan baina lurrari lotuta dago.

Behin, ordea, haize kolpeak jo zuen, gaizto...

Apexa eta lorea elkarri hizketan entzungo ditugu, hika.

Bertso sorta hau 1862ko Lore Jokoetan aurkeztu zuen Elizanburuk.

1 Neguaz primadera zenean **jabetu**
sasi baten hegian* apexa zen **sortu**
leku berean baitzen lorea **gertatu**
gaixoek elgar zuten bihotzez **maitatu!**

2 Iguzkiak ihintza histen* **duenean**
apexa doa beti hegalez **airean**
nahi luke loreak segitu **bidean**
girtainak* zertako du gelditzen **lurrean.**

3 **Lorea**
Nere besoak ditik ihintzak **zerratzen***
ondikotz!* Iguzkiak goizean **urratzen!**
Zertako haiz hi beti nitarik **urruntzen?**
Hi guan* eta badakik, nigarrez nauk **urtzen.**

4 **Apexa**
Zertako nigar egin, o lili **maitea?**
Egunaz iguzkia dun nere **jabea**
goizetik lorez lore dinat nik **bidea**
iguzkia sartzean beti naun **hirea....**



hegian = ertzean
histen = ahultzen,
ezabatzen

girtainak = zurtainak
zerratzen = isten
ondikotz = zoritxarrez

urratzen = irekitzen
guan = joan





5 Lorea

Goiz guzietz adio, arratsean agur
egunak luze dituk gauak aldiz labur
nere nigarrez otoi* ez hadila samur
zeren hire galtzeaz beti nauk ni **beldur**...

6 Iguzkiak, goiz batez, zenean **agertu**
lorearen besoak zituen **urratu**
bi maitek zutenean elgar **besarkatu**
apexak haizeari hegala **hedatu**.

7 Haize bihotz gabea zertako **herritik**
eraman duk apexa mendien **gainetik**?
Zertako duk urrundu **maitearenganik**?
Hegazti gaixo horrek ez zian **hobenik**.*

8 Apex hegal flakoa, geldi hadi, **geldi**
utziz bozkarioa*, doluan sar **hadi**:
Zertako haiz fidatu haize **gaixtoari**?
Lorearen gainera lurra duk **itzuli**!*

9 Apexa
Maitia kausitzen* haut lurrez **estalia**!
Jainkoak bereganat deitu hau, **lilia**!
Hi lurreko hindudan sosegu **guzia**;
hil haiz! Orain neretzat deus ez dun **bizia**.

10 Oraino iguzkia zohan **inguruan**
apexa zenean hil bere sor **lekuan**...
Izan baitzuen aski zorigaitz **munduan**
agian lorea du kausitu **zeruan**!



otoi = arren
hobenik = errurik, kulparik
bozkarioa = poza

itzuli = irauli
kausitzen = aurkitzen






TXORIMALOBURUARI

Doinua: Neguaz primadera

Neurria: Zortziko txikia (hg). Lau puntuko txikia (ip)



Amets Arzallus Antia
(1983 Hendaia, Lapurdi)

“Neguaz primadera” doinuaren jatorrizko sortan, apexa (edo tximeleta) eta lorearen arteko maitasun istorioa ezagutu genuen. Sorta honetan, aldiz, lore beldurtuak aurre egingo dio bere zapaltzaileari, Txorimaloburuari. Aurre egitera ausartzeko, loreak amorru handia sentitu behar izan du; zapaltzen gaituztenean, amorrua sentitzea ezinbestekoa zaigu, besteei mugak jartzeko.

Txorimaloburua

- 1** Amak hainbeste tira ohi dit **belarria**
ia ez daukat bere lekuan **jarria**...
Ta ahanzteko etxeko ikara **larria**
eskolan bihurtzen naiz **ikaragarria**.
- 2** Hemen aurkitu zaitut panpinatxo **galdu**
zure sator muturrak irririk ez al **du**?
Zer zabiltz, ez zazula malkorik **zabald**
egizu nik bezala beste bat **zapaldu**.





Lore beldurtua

- 3** Besteek nire minak ikus ez **ditzaten**
borreroa datorkit aholku **ematen**...
Beste bat zapaltzeko errex da **esaten**
denak ez gara horren maltzurak **izaten**.
- 4** Zure mespretxu keinu ta burlazko **hitzen**
oihartzunen taupadak ez zaizkit **isiltzen**.
Izuak nau ahultzen eta lotsak **biltzen**
bizitzeko gogorik ez baitzait **gelditzen**.
- 5** Nerabezaroa da nortasunen **gerra**
zu ni zapalduz egin zaituzte **liderra**.
Besteen miresmenak dakarzun **plazerra**
handia izango da baina ez **ederra**.
- 6** Baina gaur esnatu naiz atzo ez **bezala**
erantzi behar dizut otsoen **azala**.
Beldurrezko ipuinak libre utz **nazala**
jolastu zaitezte zu ta zure **itzala**.
- 7** Txorimaloburua zoaz **baratzera**!
Eta zu salbatzeko inor **zapaltzera**
ez zaitez niregana etorri **atzera**
zoaz zure ikarak **madarikatzer**a.
- 8** Bakardade pixka bat ongi **datorkizu**
nik ahizpa zaharrago bat dudala **jakizu**
niri hark lagundu dit ez izaten **izu**
zuri ere norbaitek lagunduko **dizu**.





ENE ERREKONTRUA

Doinua: Gizona da zoroa

Neurria: Zortziko txikia (hg). Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria:

Fernando Aire Xalbador. 1976. Odolaren mintzoa. Auspoa. 135 or.



Fernando Aire Xalbador
(1920-1976)
Urepele, Baxenabarre)

Ehizean, usotan izandako errekontrua edo istripua azaltzen du Xalbadorrek; eskopeta bizkarrean hartuta zihoala, ustekabeen tiroak ihes egin eta zango muturrean jo zuen. Bi hatz moztu zizkioten. Hor konturatzen da Xalbador zer egiten dieten ehiztariek usoei.

“Odolaren mintzoa” liburuan eta diskoan argitaratu zuen sorta (1976).

- 1 Gizona da zoroa ta bihotz **gabea** barnean baldin badu plazerren **gosea** arimadun batentzat zer **egitatea*** hegaztin inozenter bizia **kentzea!**
- 2 Tiroka ari denak uso **gaixoari** bere burua ere ez du **urrikari*** usor egin nahia jin* daike **berari** hori gertatu zaio aurten **Xalbadorri**.
- 3 Urrieta* goiz batez, goizik **oihanean** ihizin* nindagola arma **bizkarrean** tiro bat eskapatu zaut uste **gabean** xuxen-xuxena sartuz zango **muturrean**.
- 4 Jainkoari eskerrak hortan **gelditurik** gehiagokorik gabe bi eri* **mozturik** tiroak hartu balu nonbait **barnagotik** egun ez zen entzunen kantuz **Xalbadorrik**.
- 5 Tiroak hiltzen baitu hatzemanetz* **geroz** bederen zaurituko gaitu aldi **oroz***; bizi nahi badugu trankil eta **uros*** arma xaharra sal ta berririk ez **eros**.
- 6 Arma lanjerosa* da gehiago **ezina** ez dea alabainan* hiltzeko **egina?** Nik ene malurrean* egiten dut **zina** beiratuko* naizela hemendik **aintzina***.



egitatea = jokabidea

urrikari = errukarri

jin = etor

Urrieta = Urria (hilabetea)

ihizin = ehizean

eri = hatz

hatzemanetz = harrapatuz

aldi oroz = aldi guziz

uros = pozik

lanjerosa = arriskutsua

ez dea alabainan = izan ere ez al da ba

malurrean = zorigaiztoan

beiratuko = zainduko

aintzina = aurrera



ARI NAIZELA ARI NAIZELA

Doinua: Ari naizela ari naizela I

Neurria: Zortziko handia (hg). Lau puntuko handia (ip)

Testuaren iturria:

Antonio Zavala. 1992. Txirrita. Auspoa. 84 or.

Indalecio
Ojanguren



Pedro Jose Elizegi Pello Errota
(1840-1919 Asteasu, Gipuzkoa)

Jose Manuel Lujanbio Txirrita
(1860 Ereñotzu - 1936 Altza,
Gipuzkoa)

Pello Errota tabernan dela, hor sartu da Txirrita. Kantulagun minak dira biak eta, adarra jotzen, bertsotan hasi zaio Pello...

Pello Errota

Ari naizela, ari naizela
hor ikusten det **Txirrita**
eta zein ez da harrituko gaur
gizon hori **ikusita**?
Dударik gabe egina dio
andregaiari **bixita**
oso dotore etorri zaigu
bi alkandora **jantzita**.

Txirrita

Hauxe da lotsa eman didana
gizon artera **sartuta**
edozer gauza esaten degu
edan tantokin **poztuta**
bi alkandora ekarri ditut
bat erantzia **ahaztuta**
Pellok bi nola jantziko ditu
bat besterikan ez **du-ta**? (*)

(*) Antonio Zavalaren hitzetan, honela ere jaso izan da: "Pellok bi nola jantziko ditu bat bererikan eztu ta". Alegia, Pellok alkandora bat ere ez duela, berea denik. Txirritak benetan nola esan zuen ez dakigu.






TXIRRITAK GERRARI 1936KO BERTSO GUDUAN

Doinua: Ari naizela ari naizela I

Neurria: Zortziko handia (hg). Lau puntuko handia (ip)

Testuaren iturria: Joseba Zubimendi. 1936.

Bertsolari Guduak 1935-1936. Euskaltzaleak. 32 or.



Jose Manuel Lujanbio Txirrita
(1860 Ereñotzu – 1936 Altza,
Gipuzkoa)

1936ko Bertso Guduaren finalean, gai-jartzaile aritu zen aurreko edizioko irabazlea: Basarri.

Gaiak bertsotan ematen zizkien lehian ari ziren 9 bertsolariei.

Bertso batekin gai hauxe jarri zien denei, txandan-txandan, abestu zezaten: gerra.

Ilarako azken bertsolariek ez zuten lan erraza, ideia berriekin entzuleak harritzea.

Baina Txirritak asmatu zuen, kantatzen seigarrena izanagatik, inork eman gabeko arrazoiak ematen, umorez.

- 1 Zenbat errezo egin izan det
nere denboran **elizan**
ta pozik nago ikusirikan
pakian nola **gabiltzan**
ni naizen bezin kobarderikan
inor ezin leike **izan**
semiak gerra ez joateatik
mutilzahar gelditu **nintzan!**

Tartean, Mixel Dargaitz bertsolariaik
(Amaiurkoa zen, nafarra) halaxe bota
zuen: "gerlan haragi baino nahigo dut
bakietako sardinak".

Eta horratx Txirritaren ateraldia...

- 2 Okasiua hara jendiak
nola gerta **litekian**
hobia degu gerratan baino
bizi umore **onian**
zenbait bezela ez naiz izaten
fondetan* eta **kafian**
gerran gosiak baino nahio det
nahikua janda **pakian**.

1936ko Bertso Gudua Txirritak irabazi zuen. Urte hartantxe hilko zen.

Gerrak harrapatu aurretik joan zen Txirrita.



fondetan = ostatueta






GERNIKA'KO TXIKIKETA

Doinua: Ama Birjina Erkudengoa I

Neurria: Zortziko handia (hg). Lau puntuko handia (ip)

Testuaren iturria: Inazio Eizmendi Basarri. 1992.

Nere bordatxotik. Auspoa. 73 or.



Jesús Elósegui

Iñaki Eizmendi Basarri
(1913 Errezil - 1999 Zarautz,
Gipuzkoa)

1937ko apirilaren 26an Gernika (Bizkaia) bonbardatu zuten faxistek. Franco generalari agintea hartzen laguntzen ari ziren Alemaniako eta Italiako hegazkin naziek jaurti zituzten bonbak. Propio, merkatu eguna hautatu zuten, herritarrak erasotzeko. Hildakoak 2.000tik gora izan ziren eta etxeen %1 soilik gelditu zen zutik. Zutik iraun zuen gauza bakanetako bat, Gernikako arbola izan zen: Batzar Etxearen aurreko haritza zaharra, Euskal Herriko foruen edo legeen ikurra.

Bonbardaketa salatzeke Picasso margolariak "Gernika" koadroa sortu zuen.

Basarriren bertso sorta hau Joseba Tapia trikitilariak jaso zuen "Agur intxorta maite: 1936-37 gudako kantuak" CDan (2001 Gaztelupeko Hotsak), Sebastian Lizasok abestuta.

1 Mila ta bederatzirehun da
hogei ta **hamazazpia**
euskotarrentzat urte beltz, illun,
triste ta **negargarria**.
Hauts bihurturik utzi zutena
Gernika **zoragarria**
euskal reliki maitatuenak
gordetzen zitun **herria**.

2 Apirileko hilarekin zan
hogei ta **seigarrenean**
hain juxtu ere peri eguna
astelehen **arratsaldean**
kale-baserri, milaka anai
gizatasun **ederrean**
plaza inguruan aurkitzen ziran
lehengo ohitura **zaharrean**.

3 Kanpandorreko ezkilak hasi
ziran dinbili-**danbala**
goiko piztien motor burruna
entzuna zan **berehala**
emakume ta ume gaixoak
kurrixka* **zeriotela**
heriotzari ihesi nahirik
nora jo ez **zekitela**.

4 Bertsoz nork esan bonba txar haien
indar gaiztozko **danbarra**?
Ez zuten behintzat osorik utzi
bizileku bat **bakarra**.
Ta dana xehetu zuten garaian
alde guztitik **sugarra**
errugabeko gixaxoentzat
horra hor azken **ederra**!



kurrixka = garrasi





- 5 Bizi ziranak ihesten zuten
sutegi zakar **hartatik**
baina hegazkinak tiro ta tiro
etengabe **goietatik**
kristau gorputzak alde batetik
beso-buruak **bestetik**
odol gorrizko itxaso hartan
ez zan ikusten **besterik**.
- 6 Milatik gora igaro ziran
arnasa **utzitakoak**
ez jakin zenbat bizi guztiko
eri **gelditutakoak**.
Hoietatikan gehientsuenak
andrezko ta **umetxoak**
guda txar hortan erru galantik
izango zuten **gaixoak**!
- 7 Puska dituzte gure herri polit
apain eta **maitekorrak**
puska dituzte baserri txuri
gure kabi on, **xamurrak**.
Ta zirtzildurik* kaletan utzi
o, euskaldunen **hezurrak**
Alemanitik gu txikitzero
etorritako **maltzurak**.
- 8 Basati gaizto, odolzaleak
atzerritatik **ekarten**
tokirik zoragarrienari
txikitu ta su **ematen**
hauts egindako gure Gernika
antsika dago **esaten**
Franco ta bere laguntzaileak
zein bihotz ona **daukaten**.
- 9 Ikusi zuten neurrigabeko
pekatua **zeukatela**
ikusi zuten hainbat kristau on
odolustu **zituztela**
ikusi zuten mundua kontra
jeikiko **zitzaietela**
eta orduan zabaldu zuten
gorriak* erre **zutela**.
- 10 Ez da, ez, alperrikako izan
hor ixuri dan **odola**
pentsa oraindik emaitz ederrak
ematekotan **dagola**.
Euskal gogoa armez ta indarrez
ezin hil leike **inola**
Gernika erre ziguten baina
zutinik dago **arbola**.



zirtzildurik = zarpaildurik


gorriak = ezkertiarak,
errepublikarrak; herriak hautatuta
agintean zeudenak





AMERIKANOA TA NESKATXA

Doinua: Aita Jainkoak egin banindu
Neurria: Zortziko handia (hg). Lau puntuko handia (ip)
Testuaren iturria: Antonio Zavala. 1974.
Oiertzungo beste lau bertsolari. Auspoa. 120 or.



Martzelina Lopetegi Olaiz
(1864-1930 Oiertzun,
Gipuzkoa), Antonio Zavala
ikerlariaren ustez.

Amerikan aberastutako gizon bati Oiertzungo Galtzareta baserriko neska gaztea gustatzen zitzaion. Garai hartako moldetan, emakumearekin berarekin hitz egin aurretik, lehenik gurasoekin egin zuen “esposatzeko” tratua. Joan da gero emakumearengana; berekin ezkondu nahi zuela, hitzez esaten ausartzen ez, eta bertsotan azaldu zion.

Antonio Zavala ikerlariak jaso zizkion bertso hauek Jose Manuel Lekuona “Lexoti” bertsolariari (1925-2006 Oiertzun). “Lexoti”k ez zekien bertsoak nork eginak ziren, baina “neskatxa” Galtzareta baserrikoa zela zion; Galtzaretan, ezkondu aurretik gizonekin bertsotan noiznahi aritzen zena, Martzelina Lopetegi zen; Antonio Zavalaren ustez, Martzelina izango zen bertso hauetako “neskatxa”. “Amerikanoa” nor zen, auskalo...

Amerikanoa

- 1 Zure aita ta amak eta nik
hitzez tratatu **genduan**
ahal baldin bazan esposatzeko
biok aurtengo **neguan**
oraintxe laixter esan behauzu
zer dadukazun **goguan**;
bazenakizu ni zuretzako
zer gauza ona **naguan**!

Neskatxa

- 2 Zu gauza ona baldin bazaude
munduan ez da **txarrikan**
badirudizu gaur bertan irten
zerala **infernutikan**
nahiagatikan ez dezu entzungo
nigatik **baiezkorikan**
ez zait gustatzen zu bezelako
mutilzahar **itxusirikan**.

Amerikanoa

- 3 Ez al diozu begiratutzen
nere **poltsa-diruari**?
Hortatik sobra dabilkigunak
gauza daukagu **ugari**.
Ez al dituzu ikusi izandu
herrian zenbat **dendari**
jatekorikan eman nahi ezik
dirurik ez **duenari**?

Neskatxa

- 4 Horrelakorik ez det aditu
jaiotzetik **oraindaino**
nere negarra zabalduko da
Amerikatik **hauntzaino**
zuk izan arren urre ta zilar
zerorri **estaltzeraino**
nik nahiago det neskazahar bizi
zurekin ezkondu **baino**.





IZAZU NITAZ KUPIRA

Doinua: Loreak udan ihintza bezela

Neurria: Zortziko handia (hg). Lau puntuko handia (ip)

Testuaren iturria: Euskal Kantutegia. Eusko Ikaskuntza



Indalezio Bizkarrondo
Bilintx (1831-1876 Donostia,
Gipuzkoa)

Bilintxek, loreak udan ihintza maite duten bezala, maite du neska gazte bat. Neskaren dohainak munduko gauza eder guztiekin konparatuko ditu bertso sortan zehar eta ezkontzeko eskatuko dio. Erreguka amaituko du azken bertsoa: "izazu nitaz kupira!".

Sorta honek doinu aldaera asko ditu.

- 1** Loriak udan ihintza bezela
maite det dama **gazte bat**
hari hainbeste nahi diotarik
ez da munduan **beste bat**.
Inoiz edo behin pasatzen badet
ikusi gabe **aste bat**
bihotz guztira banatutzen zait
halako gauza **triste bat**.
- 2** Neskaxa gazte paregabia
apirileko **arrosa**
izarra bezain dizdizaria
xoria bezain **airosa**
oraintxe baino gusto gehiago
nik ezin nezake **goza**
zorionian ikusten zaitut
nere bihotzak hau **poza!**
- 3** Ez al didazu antzik ematen
nik zaitudala **nahiago**
ai! Marinelak gau ilunian
izarra baino **gehiago**
nere onduan zauzkadalako
pozez zoraturik **nago**
zu ikustiak alegratu nau
triste nenguen **lehenago**.
- 4** Nik hainbat inork nahi dizunikan
arren ez zazula **uste**
nere begiak beren aurrian
beti desio **zaituzte**:
eguzkirikan ikusi gabe
txoria egoten da **triste**
ni ez nau ezerk alegratutzen*
zu ikustiak **hainbeste**.



alegratutzen = pozten, alaitzen





5 Aurpegi fina, gorputza berriz
ez dago zer **esanikan**
hizketan ere grazi ederra
ezer ez dezu **txarrikan**
mundu guztia miratutare*
zu bezelako **damikan***
agian izan liteke baino
ez det sinisten **danikan**.

6 Nere betiko pentsamentua
nere **kontsolagarria**
zu gabetanik ezin bizi naiz
esaten dizut **egia**:
Zu bazinake arbola eta
ni baldin banintz **txoria**
nik zu zinaken arbol hartantxe
egingo nuke **kabia**.

7 Amoriuak nere bihotza
zureganantza **darama**
herri guztian zeren daukazun
neskatx bikainaren **fama**
beste fortunik mundu honetan
ez det desiatzen, **dama**
haur batek berak izan gaitzala
ni aita eta zu **ama**.

8 Falta duenak logratutzeko*
hitz egitia txit **on du**
eta nik ere saiatu bihat
ote gintezken **konpondu**
gaur nagon bezain atrebitua*
sekulan ez naiz **egondu**
hargatik kolpez galdetzen dizut
nerekin nahizun **ezkondu**.

9 Ezkondutziak izan behar du
preziso* gauza **txarren bat**
hala esaten ari zait beti
nere **konsejatzaille bat**.
Halaxen ere haren esanak
oso utzirik **alde bat**
ongi pozikan hartuko nuke
zu bezelako **andre bat**.

10 Zerorrek ere ongi dakizu
aspaldi hontan **nagola**
zuregatikan penak sufritzen
bainan ordia hau **nola**
halaxen ere nigana ezin
bigundu zaitut **inola**:
Ni zuretzako argizaia* naiz
zu neretzako **marmola***.



miratutare = ikusirik ere
damikan = damarik
logratutzeko = lortzeko
atrebitua = ausarta


preziso = preseski
argizaia = ezkoa
marmola = marbrea





11 Nere bihotza urtzen dihua
eta ez da **misterio**
penaren kargak estutu eta
zumua* kendutzen **dio**:
begiak dauzkat gau eta egun
eginikan bi **errio***
beti negarra dariotela
zu zeralako **medio**.

12 Zu zeralako medio baldin
juaten banaiz lur **azpira**
gero damua eta malkuak
alperrik izango **dira**
behin jua ezkerro hoi birtutez
berriz ez ninteke **jira**
hori gertatu baino lehenago
izazu nitaz **kupira**!



zumua = zukua

errio = erreka

